



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Vital Open Science: Arabako ikastetxeei zuzendutako zientzia-programazioa

Ikastetxeek aurtengo ikasturteari begira dituzuen zailtasunen aurrean, **Vital Fundazioak** 'Vital Open Science' izeneko programa berritzailea eskaini nahi dizue, BLOOK irabazi-asmorik gabeko elkartearekin batera abian jarriko duguna. Hainbat zientzia-arlori buruzko prestakuntza-eskaintza osoa da, eta doan sartu ahal izango duzue, zuen hezkuntza-programa osatzeko. Egungo egoera dela eta, prestakuntza online emango da *streaming*-ean, ordubeteko *webinar*-en bidez. Gainera, edukiak grabatu egingo dira, gero zuek erabili ahal izateko material didaktikoa izan dadin.

Vital Open Science-k barne hartuko ditu tailerrak eta esperimantazioa, laborategiko ekipoen fabrikazioa eta erabilera, erronkak, neurozientzia-showak, gizarte-berrikuntza, aurkezpenak, adituekiko elkarrizketak eta zientzia-proiektuak nahiz herritarren zientzia proiektuak.

Webinar saioak urriaren 30ean hasiko dira eta 2020ko azaroan eta abenduan zehar izango dira. Eskertuko genizueke minutu batzuk ematea programazio berritzaile hau kontsultatzen, eta parte hartu nahi izanez gero, bete ezazue izena aurretik emateko [jarraian duzuen formularioa](#).

Zuen galderei erantzuteko posta elektroniko bat ere gaitu dugu: actividades@fundacionvital.eus.

Jarduera-eskaintza

Hasierako programazio honek zenbait doako *webinar* ditu, lau jarduera motatan sailkatuta:

GAIKAKO ELKARRIZKETA ADITUEKIN

Gai espezifiko batzuk aurkeztea adituen laguntzaz, parte-hartzaileen eta aurkezleen arteko elkarrizketa errazten duen formatuan.

PRAKTIKA ESPERIMENTALA

Parte-hartzaileek beren emaitzak lortzeko erreplika ditzaketen zientzia-esperimentuak eta -jarduerak aurkeztea, parte-hartzaileen eta aurkezleen arteko elkarrizketa errazten duen formatuan.

IKUSKIZUN ESPERIMENTALA

Zientzia eta teknologia ikasteko aukera ematen diguten esperimentuen aurkezpena denbora errealean, ikuskizun ikusgarri batez gozaten dugun bitartean.

HERRITARREN ZIENTZIA

Herritarren parte-hartzea erabiltzen duten zientzia-proiektuak aurkeztea.

MATERIALEI BURUZKO OHARRA

"🔧" Ikur hori duten jarduerak materialak eta ekipoak behar dituzte. Jarduera batzuetarako materialak eta ekipoak merkeak dira eta erraz eros daitezke. Material berezi batzuk Biook-en bidez erosi ahal izango dira.




NOLA SORTU LOW COST BIOLABORATEGI BAT ZURE IKASTETXEAN

PARTE HARTU

12 URTETIK
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

1. Garajeko laborategia edo laborategi komunitarioa *low cost* laborategi bat da, eta normalean norberak fabrikatutako ekipamendua edo berrerabilia izaten du; askotan, instalazio profesional batzuen pareko maila izaten du. Zure eskolan kostu txikiko laborategi komunitario bat nola sortu eta nola erabili izango dugu hizpide.



COVID-19 ETA OSASUNA: AIREAREN KALITATE-SENTOREA

PARTE HARTU

12 URTETIK
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

2. Airearen kalitatea funtsezkoa da gure osasunerako. *Webinar* honetan kostu txikiko sentzore autofabrikatu bat aurkeztuko dugu, airearen kalitatea neurtzeko, eta airearen kalitatearen eta COVID-19aren arteko erlazioa ezagutuko duzu.



ARE WE EATING PLASTIC?

PARTE HARTU

10 URTETIK
GORAKOENTZAT GOMENDATUA


3. Mikro plastikoak gure ingurunean eta izaki bizidunetan metatzen diren plastikozko partikula txikiak dira. Plastikoez eragindako kutsaduraren errealitatea ezagutuko dugu, eta mikro plastikoez ekosistemetan eta gure osasunean duten eraginari buruz hitz egingo dugu.



ZURE SMARTPHONERAKO MIKROSKOPIO BAT FABRIKATU

PARTE HARTU

12 URTETIK
GORAKOENTZAT GOMENDATUA


4.  Praktika esperimental honetan mikroskopia bat fabrikatu ahal izango duzu, zure telefono mugikorreko kamerari akoplatuta mundu mikroskopikoaren miaketa, argazkiak eta bideoak egiteko.




GENETIKAKO BOOTCAMP

PARTE HARTU

12 URTETIK
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

5.  Saio praktiko honetan, zenbait frutaren DNA isolatu ahal izango duzu, DNAREN zure helize bikoitza eraikiko duzu eta haren egitura 3Dn bistaratuko duzu, zure etxean eskuragarri dauden materialak eta ekipoak erabiliz.

IKUSKIZUN ESPERIMENTALA



NEUROZIENTZIA IKUSKIZUNA: ZURE ADIMENAREN BOTEREA

PARTE HARTU

10 URTETIK
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

- Ikuskizun esperimental honetan gure nerbio-sistemak nola funtzionatzen duen ikusiko duzu, eta gure nerbio-bulkadetatik abiatuta, kostu txikiko ekipo autofabrikatu bat erabiliz, drone bat aireratu dezakegula, beso robotiko bat mugitu dezakegula... eta, kontu askoz gehiago ikusiko duzu!

HERRITARREN ZIENTZIA



HERRITARREN ZIENTZIA ETA OSASUNA

PARTE HARTU

12 URTETIK
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

- Herritarren zientzia zer den eta zientzialari profesionali gure osasuna eta ingurumena hobetzen nola lagun diezaiekezun ikasiko duzu *webinar* honetan.



EYEWIRE HEROES: A GAME TO MAP THE BRAIN

PARTE HARTU

12 URTETIK
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

- Nabigatu neuronen artean eta lagundu zientzialari profesionali garunaren 3D mapa bat eraikitzen, herritarren zientziaren eta adimen artifizialaren jolas honen bitartez.

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA